

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AGURAINGO UDALA**

Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda: iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, langile espezialistaren plazari dagokiona

Alkatearen 2023ko abenduaren 11an 159 Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Deialdiaren oinarriak argitaratu dira 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn (148. zk.), eta huts-zuzenketa egin da ALHAOn (31. zk., 2023ko martxoaren 15ekoa). Deialdiaren laburpena ere argitaratu da 2023ko maiatzaren 11ko BOEn (112. zk.).

Amaitu da eskaerak aurkezteko hogeitau egun balioduneko epea, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzentzekoa ere. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea Aguraingo Udalean langile espezialista plazaren hautaketa prozesuan (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzekoa) onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

ONARTUAK

IZEN-ABIZENAK	NAN	AUTOBALORAZIOAREN PUNTUAK
PABLO ORTIZ DE PINEDO SANTAMARIA	***3056**	20
LORENA PÉREZ GONZÁLEZ	***2645**	10
ASIER MONDEJAR MADINA	***9614**	80
ENDIKA GABIRIA LARREA	***8889**	47,33424
RAUL SANTOS GARCIA	***9278**	50,95226
FRANCISCO JAVIER BOCANEGRA AMAYUELAS	***0737**	33,05566
JON CORTAZAR GONZALEZ DE LANGARICA	***1800**	37,22236
JOSE BRAVO MURILLO	***1499**	21,07056
PABLO ORTIZ DE PINEDO SANTAMARIA	***3056**	20

BAZTERTUAK

IZEN-ABIZENAK	NAN	ARRAZOIA	PUNTUEN AUTOBALORAZIOA

Hamargarren oinarrian jasotakoarekin bat etorritz, deialdian plaza 1 sartu denez, autobalorazioan 33,05566 puntu edo gehiago lortu dituzten eskaerak baloratu behar dira.

Bigarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiak agiriaren bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendu honek barnean hartzen ditu eskaeran alegatutako merezimendu guztiak, zortzigarren oinarriaren arabera ofizios kontsultatu behar direnak izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizios kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite ereduak jasotzen dituenak.

Hirugarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek adierazi beharko dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiliko duten titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

Laugarrena. Agiriak deialdia egin duen administrazioaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Era berean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Bosgarrena. 9.2. oinarriaren arabera, baztertutako pertsonak merezimenduaren balorazioa aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara azterketa egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsua aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean errekurtsua ebatzi gabe badago, kautelaz egin ahal izango dute euskara azterketa. Egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezestekoa bada.

Seigarrena. Esandako hautaketa prozesuan epaimahai kalifikatzaileetako kide hauek izendatzea:

	TITULARRA	ORDEZKOA
Epaimahaiburua	Pablo Martínez de Arbuló Echevarría	Alexander Rodríguez López
Bokala	Vanessa Domínguez Casal	M ^o del Carmen Rojo Pitillas
Bokala	Jose Ignacio Goenaga Garralda	Amado Abascal Calleja
IVAPeko ordezkaria	Carmen Luque Moreno	Izaskun García Zorzano
Idazkaria	María Jesús Sáez de Jauregui Suso	Jorge Gallo Medina

Zazpigarrena. Ebazpen hau ALHAOn, erakunde honen iragarki-oholean eta udalaren web-orrian argitaratzeko agintzea.

url: <https://agurain.eus/eu/udala/iragarki-taula>.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bidearen, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsuak batera jartzerik. Aurrekoek gain, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango du.

Era berean, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako egoeretako batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urteetan izangaiek prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Agurain, 2023ko abenduaren 19a

Alkatea
RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR

I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritzarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundearen.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizios egiaztatuko ditu eta/edo espedienteen sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zortzigarren oinarria):

- NAN/AIZ
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria
- Gidabaimena (DGT)
- IT txartelen ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak

DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:), LANGILE ESPEZIALISTA plaza baten prozedurari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:

- Titulu akademikoa
- Euskarako hizkuntza eskakizuna
- IVAPen bidez egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria
- Gidabaimena (DGT)
- IT txartelen ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak

Aurka egiteko arrazoiak:

.....
.....
.....
.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....
.....
.....
.....
.....
.....,(e) koren(a)

Sin.:

II. ERANSKINA

BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:.....),
Aguraingo Udalean LANGILE ESPEZIALISTAREN plaza 1 (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzea) hautatzeko deialdiari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa
titulua erabiliko dut, egun honetan lortua:

.....,(e) koren(a)

Sin.: